

Diru Sarrerak

Gure aplikazioaren prezio-eredua Premium sistema da. Bezeroek hilean 6,99 € ordaindu beharko dute, eta urteko ordainketa aukeratuz gero, 84 € beharrean 20% merkeago, hau da gutxi gorabehera 67€. Horrela, bezeroek aukera izango dute hileko ordainketaren malgutasuna edo urteko planaren prezio abantailatsuagoa aukeratzeko. Urteko plana aukeratuta, prezio hobea lortzeko. Prezioa finkatzerakoan kontuan hartu dugu: Erabiltzaileak psikologo pribatu baten alternatiba, aukera merkeagoa bilatzen duela, gainera, Freemium sistema erabiltzaile askorengana iristeko eraginkorra dela.

Irabaziak lortzen hasteko, kostu Finkoa: 12.000€ urtean (garapena, zerbitzariak, marketina...) $12.000/67 = 179$ bezero ordaintzaile behar ditugu gure urteko zerbitzua galerarik ezta irabazirik izateko.

Gure diru-sarrera nagusia harpidetzagatikoa izango da, Amazon Prime edo YouTube harpidedunen antzera. Horrez gain, publizitate bidezko diru-sarrerak lortuko ditugu bertsio doakoan, eta etorkizunean eduki digitalen salmenta ere gehitu dezakegu.

Prezioari dagokionez, prezio finkoak erabiliko ditugu, hileko eta urteko harpidetzetan prezio egonkorrak eta aurrez zehaztuak eskainiz.

